

LEGEZKOTASUN-TXOSTENA

Gaia: Hernaniko Udalak, Zabalduz Gizarte Ekimeneko Kooperaiaba Elkarreak eta Maitelan Kooperatiba Elkarreak sustatuko duten Auzozaintza proiektua.

Txosten hau egin dut horrelako gaietan legezko txostena behar dela ezartzen baitute Toki Entitateen Antolamendua, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuaren 173.1.a) artikulua eta Toki araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onetsi duen 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 54.1.a) artikulua. Izan ere, bi artikuluek hau xedatzen dute:

«1. Beharrezkoa izango da alde zuretik idazkariaren txostena, eta, hala badagokio, kontu-hartzailearena edo lege ordezten dituztenena, honako erabaki hauek hartzeko:

- a. Korporazioko lehendakariak hala agintzen duenean, edo kideen herenak hala eskatzen duenean tratatu beharreko bilkura egin baino nahiko lehenago[...]

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Eskumena

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.f) eta ñ) artikuluek hauxe xedatzen dute:

«1. Hauek dira, nolahi ere, osoko bilkurari dagozkion eskumenak: f) Zerbitzuak kudeatzeko moduak eta udalekotez-espeditentak onartzea. [...] ñ) Obra-proiektuak eta zerbitzu-proiektuak onartzea horiek kontratatu edo horien emakida egiteko eskumenak baditu eta proiektuok aurrekontuetan oraindik aurrekusi gabe badaude».

Lege horretako 25.2.e) artikulua xedatzen du honako hau: «Gizarte-premiako egoeren ebaluazioa eta informazioa, eta gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako berehalako arreta». Era berean, 26.c) artikulua honela dio: «Udalerriek beren kasa edo elkarturik zerbitzu hauek bete beharko dituztela, nolahi ere: c) 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, lehengoz gain: Babes zibila, gizarte-zerbitzuak betetzea, suteei aurrea hartzea eta suteak itzaltzea, eta erabilpen publikoko kirol-instalazioak».

Horretaz gain, apirilaren 7ko 2/2016 Legea Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa proiektua justifikatzen duten eskumen-tituluei erreferentzia ugari egiten die 17.1 artikuluan zehar: osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea (17.1.10); Gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea (17.1.13); diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea (17.1.14); Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo enplegu-politikak; genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea (17.1.27).

Azkenik sektoreko legediari erreparatuta, azpimarratu beharra dago urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 5.2 artikulua, zeinean ezartzen baita honako hauxe: «Udalek eskumena izango dutela Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 22. artikuluan zehaztutako lehen mailako arreta zerbitzu guztiak emateko, telelaguntza-zerbitzua izan ezik».

Abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen arabera, lehen mailako arretako gizarte zerbitzuak dira hurrengo hauek: informazio-, balorazio, diagnostiko- eta orientazio zerbitzua, etxez etxeko laguntza-zerbitzua, gizarte eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua, zaintzaileei laguntzeko zerbitzua, gizarte-zerbitzuen eremuan partaidetza eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua, telelaguntza zerbitzua, eguneko arretako zerbitzuak, gaueko harrera-zentroak eta ostatu-zerbitzuak: (horien artean, harrera-pisua, etxebizitza babestua,

apartamentu babestuak zein etxebizitza komunitarioa). Agerikoa da bederatzi zerbitzu horietatik lehenengo bostek justifikatzen dutela Hernaniko Udalaren eskumena proiektu honi ekiteko. Horretaz gain, 185/2015 Dekretuak beren-beregi salbuesten du tele-laguntza zerbitzua udalek eman dezaketen prestazioetatik.

Araubide juridikoa

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.

2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki-Erakundeei buruzkoa.

781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, toki araubideko gaietan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duena.

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.

2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki-Erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren erregelamendua onartzen duena.

Gizarte-zerbitzuen erreferentziako katalogoa (Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiarako eta Mendekotasunari Arreta emateko Lurraldeen arteko Kontseiluak onartua, 2021eko urtarrilaren 16an).

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorren gaineko Fiskalizazio Txostenak 2018 eta 2019 urteetan (Herri-Kontuen Euskal Epaitegia, 2020ko urriaren 7an eta 2021eko martxoaren 25ean onartuak, hurrenez hurren, 19. eta 20. orrialdeak).

Gaiaren azterketa

Hernaniko Udalari dagokio Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak zerrendatzen dituen lehen mailako arretako gizarte zerbitzuak ematea udalerriko herritarrei. Zerbitzu horiek zeintzuk diren adierazi ditugu goian, eta tele-laguntza zerbitzua udal-eskumenetatik at gelditzen da horrela agintzen baitu lege autonomikoak.

Euskal Autonomia Erkidegoan dauden administrazio publikoek, gizarte zerbitzuen legearen 69. artikuluari jarraikiz, hitzarmenak ezar ditzakete irabazi-asmorik gabeko gizarte ekimeneko erakundeekin, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan sartutako prestazio eta zerbitzuen hornidurarako, baldin eta, entitateen jarduera edo dagokion prestazioaedo zerbitzu berezia, premiazkoa, berritzailea edo esperimentalak izaki, itun-araubidea aplikatzea komeni ez bada.

Kasu honetan agerikoa da proiektuak betetzen dituela zerbitzu sozialen printzipio nagusiak: arreta pertsonalizatua eta integrala, prebentzioa eta dimentsio komunitarioa eta adineko pertsonen autonomia sustatzea. Adineko pertsonak onartuko dute Udalaren eta entitateen datuen tratamendua euren egoera hobetzeko hautatua izan ez den bakardadeari aurre egite aldera, eta horrek berez ekarriko du osasuna hobetzea bazterketa soziala gaindituz gero. Izan ere, bakardadea eta isolamendu soziala apurtzea eta harreman sozialak sustatzea adierazle nagusietako bat da zahartzaroan osasun-egoera ona eta pertsonaren autonomia mantentzeko. Bigarren mailako beste helburu bat da adineko pertsonen bizitza independentea luzatzea eta 60 urtetik aurrera ahalik eta beranduen jo behar izatea adineko pertsonentzako egoitza-zerbitzuetara.

Zentzu honetan zenbait proiektu martxan ditu Hernaniko Udalak aurrez aipaturiko helburuak erdiesteko: «Hernani Tratu Onen Herria», «Tratu onen mapa», «Ttapa-ttapa» (proiektu hau Kirol Arloari dagokio, ez ordea Zerbitzu Sozialen Sailari, eta egitasmoak datza adineko pertsonekin paseoak ematean udalerrian zehar). Orain aztertzen den hitzarmena, zentzu horretan, adineko pertsonen egoera hobeto ezagutzeko tresna izan daiteke, eta hortik abiatuta zerbitzu sozialen prestazioak osatzeko Hernaniko Udalerrian akonpainiamendu zerbitzu bat eskainiz derrigorrezko bakardadea pairatzen duten adineko pertsonentzako, horrela gizarte bazterketaren arriskua murriztu edo, ahal dela, arrisku horrekin bukatzeko; edo Hernaniko auzokideen mendekotasun zein zaurgarritasun egoerak medeatzeko.

Bestalde, oso garrantzitsua da zaintza pertsonalen sektorean enplegua duten pertsonen aukerak hobetu nahi direla sektorearen ezaugarriak kontuan hartuta: enplegatu asko eta asko urrunetik etorritako emakumeak dira eta zailago izaten zaie lan-merkatura sartzea, ezin dute egonkortasuna ezta lan-baldintza duinak lortu lanpostuan edo lanpostuetan, hizkuntza, kultura, legedia eta baliabide publikoak ezagutu eta erabiltzeko gehitutako zailtasunak dituzte... Ikuspegi horretatik ere, hitzarmenaren bidez interes publikoa lehenetsi dela ondorioztatu daiteke, sexuaren eta arrazaren arabera lanaren banaketarekin amaitzeko saiakera egingo delako proiektu honen bidez, eta kalitateko enpleguaren alde pausoa izan daitekeelako lan-arloko inklusioa sustatuz langileen etengabeko formazioaren bitartez.

Zabalduz Kooperatiba Elkarteak eta Maitelan Kooperatiba Elkarteak gizarte ekimeneko kooperatibak dira, biak ala biak irabaz-asmorik gabekoak. Horietatik lehenengoa onura publikotzat jo zuen Lan eta Justiziako sailburuak 2018ko maiatzaren 2an, eta bigarrena elkarlaneko kooperatiba da eta bere jardura nagusia da mendekotasun egoeran dauden pertsonen gizarte eta osasun arreta eman eta akonpainamendu soziala egitea. Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialetako Sailak kooperatiba bi horien ibilbidea eta lana positibotzat jotzen ditu. Beraz bere izaera sozietario eta juridikoan ez dago oztoporik hitzarmenak edo kontratu-programak izenpetzeko erakunde publikoekin, betiere, lege-xedapen guztiak gordeta.

Azkenik, aipatu behar da proiektua gobernantza kolaboratiboaren ildoan lerratzen dela, izan ere, bolondresak izango dira parte hartuko duten pertsonetako batzuk behar sozialak antzemateko, eta parte hartze horrek gizarte inklusiboago lortzeko aukera emango du, adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeaz gain.

Ondorio juridikoak

Hernaniko Udalak antzeman du, pertsona nagusiei buruzko bere eskumen esparruan, bakar-bakarrik bizi diren pertsonen konpainiaren beharra gero eta handiagoa dela etxe barruan zein kanpoan. Pertsona horiek laguntza zerbitzua berritzailea eta berezia behar dute, bai paseoak emateko, kudeaketak egiteko, enkargu txikiak egiteko. Edozein kasutan, akonpainiamendu zerbitzu horrek isolatzea eta bakartasuna saihestuko du, eta era horretan, adineko pertsonen autonomia galera atzeratu ahal izango da.

Toki araubidearen oinarriak arutzen dituen 7/1985 Legearen 25.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalen eskumenen artean badago gizarte-zerbitzuak eta gizarteratzeko zerbitzuak ematea. 2013 urtean legearen hitzez-hitzekotasuna aldatu egin zen, eta udalaren eskumena justifikatzen duen manua honela gelditu zen: udalaren eskumena da gizarte-premiako egoeren ebaluazioa eta informazioa, eta gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako berehalako arreta.

Euskadiko Legebiltzarrak gizarte-zerbitzuei buruz onetsitako abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 27.2 artikularen a) letrak ezartzen du gizarte-zerbitzuen sistemaren antolaketa, udalek eman beharreko gizarte-zerbitzuak adierazita «Lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuek bide emango diete erabiltzaileei gizarte-zerbitzuen sistema osora iristeko, eta autonomiaren, gizarteratzearen eta larrialdien edo babesgabetasunaren inguruko egoerei erantzun gabe, eta batez ere arrisku-egoeren prebentzioari erreparatuko diote». 22.1 artikularen arabera, Hernaniko Udal-gobernuak hasi nahi duen proiektua hoango zerbitzu hauekin bat etor daiteke: informazio-, balorazio, diagnostiko- eta orientazio zerbitzua; gizarte eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua eta gizarte-zerbitzuen eremuan partaidetza eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua. Azken bi horiek errepikatzen dira 185/2015 Dekretuaren I. eranskinean, hitzez-hitz.

Bestalde, egiaztatu da pertsona jakin batzuek sexua, arraza, hizkuntza edo beste zailtasun bereziak izaten dituztela lan-merkatuan sartzeko, lan-egoera prekarioak bizi izan dituztelako edo prestakuntza eskasa dutelako. Hori dela eta oso komenigarria dirudi pertsona horiek parte har dezaten adinekoei edo autonomia mugatua dutenei laguntzeko zerbitzua emateko ekimen honetan, prestakuntza eta trebakuntza egokia emanez, horrela lan-munduan sartzeko aukera haiei erraztuz.

Lehen aipatu diren Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 7., 60., 69., eta 74. artikuluek eta horiekin bat datozenek ezartzen dute Administrazio publikoek eskumena daukatela irabaz-asmorik gabeko ekimeanren partaidetza bilatu eta sustatzeko, gizarte zerbitzuen arloko prestazioak emateko.

Hori dela eta, hitzarmen honekin uztartu nahi dira kolektibo zaugarri batek eskatzen duen zerbitzu baten beharra (mendeko pertsonak, bakarrik daudenak, familiaren laguntzarik gabe eta konpainiarik gabe denbora luzez, kalera bakarrik ateratzeko segurtasunik ez dutenak, laguntza-sarea urria dutenak edo laguntza-sarerik bat ere ez dutenak eta Hernanin bizi direnak), eta enplegarritasuna hobetzeko eta zailtasun bereziak dituzten pertsonen laneratzeko aukera emateko premia.

Beraz, esan dezakegu Herri-Kontuen Euskal Epaitegiarekin batera hitzarmenaren moldea erabil daitekeela kasu honetan irabazi asmorik ez duten gizarte-ekimeneko entitate hauekin, jarduerata zerbitzu honen berezitasuna, izaera berritzailea eta esperimentalak direla eta.

Hori dela eta, arestian aipatu diren arrazoiengatik, honako proposamena egiten da osoko bilkuran onartzeko:

ERABAKI-PROPOSAMENA

Hernaniko Udalbatzak, 7/1985 Legeak emandako ahalmenez baliatuz, hoango hauek erabakitzen ditu:

Lehenengoa. Zabalduz eta Maitelan kooperatiba elkarteekin hitzarmena eta eranskinak onartzea, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera eta 2022ko abenduaren 31ra arte, Hernaniko adineko pertsonen Auzozaintza programa emateko. Hitzarmena luzatu ahal izango da, berariazko ebazpena arrazoitua emanez, gehienez ere lau urtez.

Bigarrena. Hitzarmenari dagokion gastua, JRTk Hernaniko Udalaren alde —beste batzuren artean— emandako jarautsiaren monetarizazioarekin osatutako diru-funtsaren kontura finantzatzea. Aipatutako programaren ondoriozko esku-hartzeak garatzeko 2022 urterako 255.418,22 euroko gehienezko gastua baimentzea eta xedatzea. Aurrekontu partida: 02.227.99.231.11.

Hirugarrena. Hernaniko Alkateari berariazko ahalmena ematea akordio honetan onartzen den hitzarmena sinatzeko.